

Urretxuko Udal Gobernuak Azaroaren 10erako deitu duen Oroimenaren Egunaren harira, Urretxuko EHBilduk honakoa adierazten du:

- Ez dugu gaur Udal Gobernuak Iparragirre Plazan deitu duen agerraldian parte hartu.
- Euskal Herrian eta Urretxun gertatutakoaz hitz egin behar dugu, era lasai eta eraikitzailean eta batez ere serioan.
- 2015ko urriaren 29an egindako Udalbatzarrean Urretxuko EAJ , EHBILDU eta IRABAZI udal ordezkariok onartu genuen bakean eta askatasunean bizikidetzaren alde lan egiteko gure konpromisoa. 30 urte eta gero German Gonzalez eta Jose Mari Etxaniz biktimen zerrendan Eusko Jaurlaritzak aitortu izana eta Udalbatzak berrestu izana aurrerapausu handitzat jotzen dugu elkarbizitzaren esparruan.
- Horrelako gaiak, etas honek bereziki, lanketa serio, ixila, lasaia, eta konpromiso handikoa eskatzen du. 2011-2015 legealdiko Legislatura Planari jarraiki jada egin genituen lehen ahalegin isilak Urretxun eta Zumarragarekin batera ondoren, bi herriok elkarlanean *Memoria historikoaren berreskuraketa eta ikerketa beka* martxan jarri genuen. Lan horretan tesntuz bildutako 100dik gora testigantzei esker, herri honetan urteetan ixilaraziko historia ezezagunaren pasarte garrantzitsua maila audiobisualean jasota gelditu da. Era berean, badakigu gaiak tentuz eta pazientziaz jokatzea eskatzen duela.
- Gaurko deialdiak ez du baldintza hori betetzen. Ez dira etxeko lanak aurrez egin eta Udal Gobernuak berandu eta era inprobisatu batean hartu du iniziatiba. Duela 3 aste Jon Luqui alkateak berak adierazi zigun ez zuela tarterik ikusten lanketa sakonik egiteko eta ostegunean, hilak 5 sorpresaz jaso genuen deialdia korreoz astearterako kontzentrazio asmoarekin. Azaroaren 9an bezperan guk eskatutako bilerari esker esplikatu genion alkateari gure kezka eta gure proposamena. Hala ere, deialdiarekin aurrera egitea erabaki zuen.Tarte txikiegia etxe barruan, afektatuekin eta herritarrekin gaia lantzeko. Metodologia oso garrantzitsua da, are gehiago gai honi dagokionean.
- Oraindik ez dakigu memoria bakarra, memoria ugari edo pertsona bakoitzak nork bere memoria izango duen. Ez dakigu memorian sartu beharreko tarte 1960ean hasten den edo 1936an. Dakiguna da egun Urretxuko biktimen erretratua osatzeke dela eta zauriak ixteko ezin dugula duda-mudazko urratsik eman. Galderei erantzunak emango dizkieten pausoak eman behar ditugu.
- Bukatzeko ondorengo proposamen zehatzak planteatu dizkiogu alkateari hurrengo urteari begira:
 - Gaia aurretiaz lantzea, horretarako Bizikidetz lantaldea osatuz Udalean.
 - 2016ko udal aurrekontuetan memoriari diru atal bat eskaintzea eta lanketa serioagoa egiteko konpromisoa hartzea.

Jabe gara urteetako sufrimenduak amaiera behar duela eta hor guk gure erantzukizuna badugula. Ez diogu erantzukizun horri muzin egin nahi, guk ere orrialdea igartzea nahi dugu, baina ezin dugu inpultso hutsean eta azalkean geratu. Norabidea memoria edo memoriak lantzea da, egia, justizia eta erreparazioan sakontzea da biktima guztiak aintzat hartuz.

Lanean hasten bagara sakon eta zintzo, hurrengo urtean zalantza izpirik gabe plazan ikusiko dugu elkar.

Urretxun, 2015eko azaroaren 10ean